

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIANE

Erlijioa (1)

9 zbk.

2005eko irailaren 4a



Maria Jesus Yarza
jaunartze argazkian.

Garai hartan pisu handia zuten sakramentuek. Apenas zegoen jasotzen ez zuenik. Pekatu handia zen hori. "Elizara joaten ez zena, markatua izaten zen". Bataiorik hartu ez zuenen bat ezagutu zuten hizlariak baina, oso kasu bereziak ziren haiek. "Gogoratzen naiz nola bataiatu gabeko herritar bat hil zenean, hilkutsaren gainean bandera gorria

jarrita eraman zuten hilerrira. Ez zuten lur santuan lurperatu, linboan baizik". Elizara joaten ez zirenak, kanpotik etorritakoren batzuk besterik ez ziren, "oso-oso gutxi ziren. Kontatuak, e?". Ereljioa oso zorrotza zen orduan, egungo gazteek ezagutu ere egiten ez dituzten ohiturak bizi-bizirik zeuden. Jakin nahi al duzue garai haren berri? Zatozte gurekin!

HAURTZOARI BATAIOA

Haurrak, jaio bezain laster hartzen zuen bataioa apaizaren eskutik, "jaio eta hurrengo egunean, segidan igual bataiatzen zen umea, korrika. Bi egunera gehienez, bestela. Edozein garaitan, ahal zenean; goizez edo arratsalde. Umea sana ez zela edo hiltzeko arriskua izan zezakeela ikusten bazen, egun berean ere bataiatzen zen. Bataiatu gabeko umea hiltzen zenean, linbora joango zela pentsatzen zen, eta ez zerura. Leku iluna zen linboa, beldurgarria. Ume haiek, Jainkorik sekula ikusiko ez zutela esaten zen". Lehen sakramentua hartu gabeko umeek, leku berezia zuten hilerrian, "lur santua ez zen zatian lurperatzen zituzten bataiatu gabeko umeak eta bere buruaz beste egin zuten pertsonak, baita kristautasunean sinesten ez zutenak ere. Linboa esaten zitzaion hilerriko zati horri ere". Haurrak etxeetan edo baserrietan jaiotzen ziren orduan. Bataiatzera, noski, elizara eramaten zituzten. "Haurraren aita, aita eta ama-pontekoak nahiz iñude lanetan, etxeko edo gehienetan auzoko emakumeren bat joaten ziren elizara. Amak ezin zuen etxetik atera, apaizak bedeinkazioa ematen zion arte. Pekatua zen hori. Ezin dut ohitura hori ulertu. Izugarria iruditzen zait" azaldu du Pakitak. Haurra bataiatu eta hamabost edo hogeit egunera ematen zitzaion bedeinkazioa amari. Aurretik, amari ur bila-edo, kalera atera beharra sortzen bazitzaion,



Maritxu Gonzalez

"Leku iluna zen linboa, beldurgarria. Ume haiek, Jainkorik sekula ikusiko ez zutela esaten zen"

teila bat buruan jarrita egiten zuen. Emakume guztiek betetzen zuten ohitura hura, pekatuaren ondorioaren beldur baitziren. "Ohitura hori Kandelero egunetik zetorren. Ama Birjinak eliz-sartzea edo presentazioa egin zuela esaten zen". Bataioa eta gero, mokadu bat jaten zuten elizara gerturatu zirenek. "Elizara joan ziren laurak arrantxoa egiten zuten elizkizuna eta gero. Amasan, Seroetxen biltzen ziren gehienetan, gainerakoan etxean jaten zuten zerbait; saldaren bat-edo, gauza gutxi. Hor bukatzen zen ospakizuna".

Bataioan zehar, ama eta aita-pontekoek kredoa esaten zioten haurrari. "Haurra aldrebes samarra ateratzen bazen, 'honi ez baitzioten kredoa ondo esan' esaten zen".

Bataioan, santuen errezoek gain, kope-ta igurztea, ura botatzea eta argi ematea



Pakita Lasa

"Jaiotzan haurrari arazoren bat sumatuz gero, medikuak segidan bataiatzen zuen umea"

izaten ziren gainerako usadioak. "Aurreneko gurutzeta Amasan behintzat, elizaren atzean egiten zitzaion umeari. Erdi parean bigarrena eta aldairearen aurrean hurrengoa. Senitartekoei haurra borondatez bataiatzen al zuten, kristau heziketa emateko prest ote zeuden edo izena gogo onez jartzen ote zioten galdetzen zieten.

Presazko kasuren bat egokituz gero, es-



Bataioa Amasan, 1931 urtean. Pakita eta Kandi Lasa ahizpa bikiak, Antonio Zubeldia, Fermín Ugartemendia, Frantziska Lasa eta Kandida Lasa aita eta ama-pontekoekin.

kolan umea nola bataiatu erakusten zieten gaztetan. "Esan beharrekoa, nik bataiatzen zaitut aitaren, semearen eta espiritu santuaren izenean, amen' zen. Haurra etxean bataiatzea suertatuz gero, haurra elizara eramane behar zen laster eta, errezo gehiago eransten zizkion apaizak". Kasu bat baino gehiagotan, medikuak ere bataiatu izan zuen umea. "Jaiotzan hau-

rrari arazoren bat ikusiz gero, medikuak segidan bataiatzen zuen umea. Gero elizara eramaten zen apaizaren aurrera".

Bataiatzera zihoan haurra apain-apain jantzita eramaten zuten elizara. Soineko txuri luzea janzten zitzairen umeei eta burua txapelatxo txuri batekin estali. Senitartekoen edo bizilagunen artean txandakatzen zuten jantzia, batetik bestera. Pe-

pitak, oraindik ere gordeta dauka bera bataiatzerakoan egin zieten arropa.

Haurrak banaka bataiatzen ziren beti, bikiak ez baziren behintzat eta, aspaldi batean, aste egunetan. Gerora, bataioak igandetako elizkizunetan tartekatzen hasi ziren. "Gogoratzen gara nola askotan, elizkizuna eta gero, txanponak eta goxokiak jasotzeko zain izaten ginen elizaren atarian".



1959 urteko bataioa Villabonako elizan. Haur bataiatua, Patxi Mendiluze. Eliz atariko haur batek eskuan du bataio eguneko opila.



Bataioa eta gero, Villabonako gaztetxoak goxokiak eta txanponen zain, 1959 urtean.

HAURRARI EDO GAZTEARI SENDOTZA

Garai hartan, sendotza jaunartzearen aurretik egiten zen kasu askotan. Beste batzuetan, jaunartzea eta gero. Obispoa herrira etortzen zenean, adinari gehiegi begiratu gabe ematen zitzairen haurrei eta gazteei sakramentu hori. "Nire amak esaten zueenez, nik hiru bat hilabete nituenean hartu nuen sendotza. Hurrengo txanda igual hamar urte barru izango zen, beraz, multzo handia elkartzen zen obispoa Gasteiztik etortzen zen bakoitzean" azaldu du Maritxu Gonzalezek. Maritxu Mendizabalek, berriz, "nire anaia Joxe ere txikitane eman zuten. Nik sei urterekin hartu nuen sendotza, udaberria zen. Lauzirikak konfirmatu ninduen". Hainbat ume, gazte-gaztetan eramaten zuten sendotza egitera, zertara zihoazen konturatzeko adinik ez zuten garaian, "goizago edo geroago, sendotza egin behar zen, eta kito. Sei hilabeterekin, bost urterekin edo beranduenez, hamar-hamabi urterekin egiten zen. Ego-kitzen zenean". Eta zertan oinarritzen zen? "Hartzeraz gindoazen sakramentu hartan sinesten al genuen galdetzen zigun obispoak. Masaileko txiki bat ematen zigun gero". Erantzuteko adinik bazuten, baietza esaten zuten, "ez zegoen beste erremediorik". Gainera, mezak latinez izaten

ziren orduan, "ez genuen ezer ere entenditzen. Ez genekien apaizak zer zioen ere". Sendotzaren aurretik, nagusienak konfesatu egiten ziren. Pekatu txikiak apaizari azaltzen zizkieten. Konfirmaziorako, kaleko arroparekin joaten ziren jantzita, "normal-normal. Ezer berezirik gabe. Sakramentua hartu eta segidan eskolara!".



Pello Iribar

"Goizago edo geroago, sendotza egin behar zen, eta kito"



1951 urtean, gotzaiak Villabonara egin zuen bisita. Tartean dira orduko alkate Santi Mutio, on Epifanio apaiza edo Pio aguazila ere.

KOMUNIO TXIKIA ETA HANDIA

Sei-zazpi urte betetzean, komunio txikia egiten zuten gaztetxoek. Sakramentu hori apaizaren eskutik jasotzen zuten oraingotan. Horretarako ordea, dotrinara joan behar zuten eta otoitz guztiak ondo baino hobeto ikasi: "Aita gurea, kredo, salbea, mandamentuak... Den-dena ondo ikasi behar zen". Errezo horiek guztiak ondo jasotzen omen zituzten hain gaztetxotan ere, "entzutearen poderioz, besterik ez bazen". Encarnaren ustez, dotrinako prestakuntza oso ona zen, "Amasan, on Juan Zabalak prestatu gintuen. Oso-oso ondo gainera". Encarnaren garaian, jaunartze bat besterik ez zen izaten. "On Juanen garaian, ez ziren komunio txikia eta handia bereizten. Guk komunio bakarra egin genuen". Gerora, Amasara on Jose apaiza etorri zenean, kontuak aldatu egin zirela aipatu du Maritxu Gonzalezek. "Gure garaian, on Jose Baztarrika zen Amasako apaiza eta nik uste, hark jarriko zuela bigarren jaunartzea". Komunio txikiaren eta handiaren artean bazegoen gainditu beharreko tartea, "txikia egin ahal izateko orazioak ikasi behar baziren, handia egiteko dotrina ikasi behar zen". Apaizak galderak egiten zituen eta gazteek erantzuten ez bazekiten, ez zuten komunio handia egiterik izaten. Maritxu Gonzalezek gogoan du amasar gazte baten kasua. "Amasan mutilen bat geratu zen komunio handirik egin gabe, apaizaren aurrean, dotrinako galderak erantzuten jakin ez zuelako". Kasu horietan hurrengo urtera arte komuniorik egin gabe geratzen ziren gazteak. Lehenengoari baino, askoz ere garrantzia handiagoa ematen zitzaion bigarren komunioari. "Hamabi urterekin bazenekien zertara joan zinen elizara. Zazpi urterekin, berriz, dotrina buruz ikasiko zenuen, esanahirik ulertu gabe.



Encarna Yarza

"On Juanen garaian, ez ziren komunio txikia eta handia bereizten. Guk komunio bakarra egin genuen"

Komunio handirako, esaten zenuena jakinaren gainean zenukan".

Pakita Lasak komunio txikiko eguna ekarri du gogora, "gogoratzen naiz nola ostiral batean, goizeko zortziretako mezetara joan ginen eta, gainerako herritarrekin batera, Jauna nola hartu genuen. Handik eskolara. Gerra ondorengo urteak ziren eta etxe gehienetan ez zegoen aukera handirik. Guk kalez jantzita egin genuen komunio txikia baina, gure urte berean, txuriz jantzita, Amasako elizan jaunartzea egin zuenik ere izan zen". Jaunartzeak Aste Santua eta gero, maiatzean izaten ziren. Gerrak mugatutako urte haietan, jaunartzea kolorez jantzita egiten bazuten ere, aurretik eta ondoren, aingeruz jantzen ziren, oro har, neskak. "Jaunartzea egin eta gero, maiatzean jaiero aingeruz jantzen ginen. Ama Birjinari erramileteak eskaintzen genizkion". Komunioa egiteko txuriz jantzen zirenean, soineko txuri luzea eta buruan tula eramaten zuten. Errosario txuria eta hezurrezko azala zuen liburu txikia gordetzeko, patrika txiki libre bat izaten zuten "oso polita". Eskularru txuriak ere ez zitzaizkien falta. Mutilek galtza motzak edo luzeak, txaketa eta kasu askotan, korbata izaten zuten soinean, "ahal zen bezalako trajea jantzen genuen" dio Martinek. Gainerakoan,

eskuan gurutzea izaten zuten eta besoan lazo handi batekin egindako brazaleteta. Komunioa kopa eta kaliza zituen grabatuta brazaletetara. Mutilek ere, hezurrezko azala eta urrezko hizkiak zituen liburuxka eramaten zuten eskuan.

Komunioa hartu aurretik, aitortza egitea ezinbestekoa zen. "Konfesionariora joaten ginen eta gure bihurrikerien berri ematen genion apaizari: amari alde egin izana, txanpon txiki batzuk edo txokolate puxka bat hartu izana... Izaten zen zer-konfesatua, bai horixe!". Villabonako on Roman apaizarekin egin zuten aitortza hizlarietako askok. "Villabonako elizara konfesatzera etorritakoan, on Roman apaizak hartzen gintuen. Mutilak nahi zuten arte kalean jolasten ibili eta igual joaten ziren gaueko hamarretan aitortza egitera. Ordu horretan ere konfesionarioan egoten omen zen on Roman. Hainbat mutilek etxetik konfesionariora ere ekarri omen zuten behin baino gehiagotan. Orduan, konfesatu gabe ez baitzegoen komunioa egiterik. Abusatu egiten zuten askok" dio Maritxu Gonzalezek. Behin jaunartzea egin eta gero, astero-astero joan behar zen konfesatzera.

Komuniorako jantziak prestatutakoak izaten ziren gehienetan, bai nesken nahiz mutilen kasuan. "Soineko prestatuarekin egin nuen komunio handia. Soineko hura entregatzera Errenterriara joandakoan, ahizpa txikia oraindik jaunartze handia egin gabe zegoen. Hala ere, aingeru jantzen zenez, biok argazkia atera genuen *Figursky* argazki-dendan". Guzti-guztiekin ez zuten komunioa argazkia ateratzeko aukerarik izan. Mutilek ere, prestatutako jantziak egiten zuten batekin baino gehiagok jaunartzea. Pellok gogoan du bere jantzia izan zuela, "komuniorako



Pilar Gonzalez amasarra.



Pako Etxenike villabonatarra.



Dorita Etxenike villabonatarra.



Martin Laskurain

"Ahal zen bezalako trajea janzten genuen komunioan"

traje beltza egin zidaten niri". Komunioa hartzera binakajoa ziren, "mutilak mutilekin eta neskak neskekin, aldare ondora joaten ginen aulkietatik altxata". Bi alderdian aulkiak jartzen zituzten jaunartzea egin behar zuten gazteak eser zitezten. Mutlak alde batean esertzen ziren, neskak bestean. Txikiak aurrean, altuagoak atzean.

Pepitak gertaera xeblebre bat ekarri du gogora, "aulkietan eserita, gazteek argia egiteko kandela eta liburu txikia izaten zuten eskutetan. Kandela piztuta, lasai ederrean aulkian eseri zen amasar gaztea eta, su hartu zion liburuak". Gona luzeekin ibiltzeko ohiturarik eza ere nabari zen egun horietan. "Amasako elizan, aldarera gerturatzean, koska bat bada. Ni gona luzeekin ibiltzen batere ohituta ez nengoen eta, erori" azaldu du Maritxu Gonzalezek.

Jauna hartzeko hainbat baldintza bete behar zen, besteak beste, baraualdia. "Aurpegia garbitzeko beldurrez ibiltzen ginen. Ttarrantaren bat ahoan sartuz gero, akaso ezin-

go genuen komunioa hartu. Izan ere, baraurik joan behar zen elizara, ur ttarrantarik ere hartu gabe. Ohitura hori kendu zutenetik ez dira hainbeste urte pasa, ez pentsa". Baraua egiteaz gain, baziren baldintza gehiago ere, "osti santua ezin zen hortzekin ukitu. Mingaina atera eta gainean jartzen zuten komunioa. Pixkanaka-pixkanaka tragatu egin behar genuen. Lehen komunioan erakusten ziguten hori guztia, aurretik ordea, bedeinkatu gabeko ostiarekin egiten genituen frogak. Beldurra eta errespetu handia sortzen zigun hanka sartzeak". Neskek ezin zuten burua agerian izan komunioa hartzeko garaian, "mantillekin joaten ginen jaunartzera. Atzera samar jarriz gero, aurrera ekarri arazten ziguten. Kopetaren erdi pareraino atzera genezakeen gehienez ere mantilla". Emakumea, edozein elizkizun zela ere, behartuta zegoen elizara mantillarekin sartzera. Edozein arroparekin ere ezin sar zitezkeen elizara, "Amasako emakume bat,



Pepita Lasas

"Kandela piztuta, lasai ederrean eseri zen amasar gaztea eta, su hartu zion liburuak"



Ramon Garmendia amasarra.

komuniorik hartu gabe geratu zen duela urte dezente, eskote handiarekin elizara joan zelako. Hura ez zen gehiago elizara itzuli".

Komunioa goizeko zazpiretan egitea ez zen gauza arraroa. Izan ere, jaiegunez nahiz lanegunez, goizeko zazpiretako mezetan ematen zen Jauna. Meza nagusian, jende gehiegi elkartzen zenez, orduan ez zen banatzen. Goiztiar ibili behar zen, beraz, komunioa hartu nahi bazen.

BIKOTEARI EZKONTZA

"Ahal zen bezalako izaten zen ezkontza ere. Gure garaian, ez zen arraroa ezkontza goizeko zazpiretan izatea. Gure gurasoen garaian, berriz, aurretik izaten zen: goizeko seiretan". Goizean goiz edo eguerdian, familia bakoitzaren sosen arabera, ordu ezberdinetan egiten zen elizkizuna. Bazkaria ere ez zuten bikote guztiak izaten eta egiten zutenek, familiako hainbat kide biltzen zituen, ez guztiak. "Bakoitzaren diru kontuek baldintzatzen zuten eguna. Aberratek goi-goitik egiten zuten ospakizuna. Erdi mailakoek, ezkondu eta familia giroan etxean egiten zuten bazkaria. Ezer ez zeukanak, berriz, goizeko zazpiretan elizara joan, ezkondu eta lanera. Oso ezberdina zen bakoitzaren kasua". Hala ere, bate-tik bestera inbidiarik ez zela azaldu dute hizlariak. "Bakoitzak onartuta zeukan bere egoera. Ahal zena egiten zen eta kito".

Emakumeak beltzez ezkontzen ziren garai hartan. "Txuriz ezkontzen zirenak aberratsak ziren. Distintzioa zen txuriz ezkon-



Maria Mendizabalen eta Bixente Irazuren ezkontza, 1962 urtean. Pedro Mari Mendizabal aita-pontekoa, Joxepa Antoni Irazu ama-pontekoa.

tzea. Guk ezagutu genuen txuriz ezkondu zen bat baino gehiago, elizaraino lurrean alfonbra gorria jarrita. Hala ere, beltzez jantzita ezkontzen zen gehiengo nagusia". Soineko beltz luzea jantzita eta mantilla buruan. Azahar lore naturalekin edo artifizialekin osatutako apaingarria jartzen zitzaion soinekoari bular parean. Lore erramua eskuan eta baita errosarioa ere, "ahal zen ederre-

na". Zapatak beltzak. Gizonak trajez jantzita, "beltzez gehienetan, korbata eta guztia".

Ezkondu aurretik, apaizarekin hitz egiten zuten senargaiek. "Ezkontzaren aurreko hiru igandetan, iragarpen modura, pregoiak egiten zituen apaizak mezetan. Aipatu egunean, halakok eta halakok ezkondu egin nahi dute. Inork ospakizuna galerazi nahiko balu, nigana etor dadila esanaz". Behin baino gehiagotan eten ziren ezkontzak; tartean, maitaleren bat edo haurren bat agertu zelako, kasu gehienetan.

Oro har, aita eta ama-pontekoa eta senargaiak biltzen ziren ezkontzarako. "Batzuek bidaierik gabe, zuzenean lanera. Besteak Bilbaora, Iruñeara edo Gasteizera hiru edo lau egun pasatzera". Baserri giroan batik bat, hiru eguneko etzeiak izaten ziren, "ardiak hil eta etxean bertan egiten zen jaia. Senitartekoen nahiz auzokoen artean, jende piloak biltzen zen ospakizunerako". Batzuk jate- eta etortzen ziren, "baziren eguerdian baz-

Erlijioa



Villabonako elizan uztarriaren usadioa. Pako Garmendia eta Maritxu Beñaran ezkongaiak. Maritxu Letamendia eta Gregorio Beñaran ama eta aita-pontekoak.

kaltzera eseri eta gauean afaltzeko prest zeudenak". Ganbaran lo eginez igarotzen zituzten egunak beste batzuek. Erromeria ere izaten zen, nahi zuenak dantzarako aukera izan zezan.

Andregaiak gurdian ekartzen zuten bere arreoa baserrira. "Bere ohea, bere arropak... baita sehaska ere! Ia guztia ekartzen zuten gurdian emakumeak".

Garai hartako ezkontzen ohitura berezietako bat uztarriarenaz. "Oro har, apaiaren estola txikia emakumearen buruaren eta gizonaren bizkarraren gainean luzatzen zen, uztarria eginez. Usadio horrek gizonak emakumea bere mendean eduki behar zuela esan nahi zuen" edo alderantziz, emakumeak gizonaren mende egon behar zuela. Ohitura hori, esaterako, ondo ikusten ote zuten *humanetarrek*? "Horrela zelako eta beste aukerarik ez geneukalako hartzen genuen usadio hori ontzat". Hizlarietako gehienek ezagutu zuten ohitura hori, nahiz eta guztiei ez zitzaion beren azalean bizitzeko egokitu. Menpekotasunaren irudia txanponekin ere erakusten zen. "Hamairu txanpon eman behar ziren elizara, arrak deitzen



Maritxu Mendizabal

"Uztarriaren usadioak, gizonak emakumea bere mendean eduki behar zuela esan nahi zuen"



Amasako elizan uztarriaren tradizioa. Maria Jesus Otegi eta Joakin Zurutuza ezkongaiak. Valentín Otegi, aita-pontekoa.

zitzaion. Bakoitzaren ahalmenaren arabera, zentimioa, erreala edo pezeta izan zitekeen. Batzuek zilarrezko txanponak ere eramaten zituzten. Baloak ez zuen axola. Hori bai, hamairu izan behar zuten. Ohitura horrek gizonak emakumea erosten zuela esan nahi zuen". Hizlari gehienek, oroigarri gisa, gordeta dituzte ezkontzako txanponak.

"Senargaia sartzen zen lehenengo elizara, ama-pontekoak lagunduta. Hura zain egoten zen aita-pontekoarekin helduta, neska sartu arte. Generalean, ama-pontekoa senargaiaren ama izaten zen eta aita-pontekoa, berriz, emaztegaiaren aita. Kasu askotan, bataioko aita eta ama pontekoak mantentzen ziren. Bikoteak izango zuen lehenengo haurra ere haientzat izango zen. Amandreak eta aitajaunak pisu han-

dia zuten, bikoteari zerbait gertatuz gero, haiek egin behar baitzuten haurraren kargu".

Ezkontzako meza ere latinez izaten zen, guzti-guztia. "Senar-emazteei zuzenduta, nahi zen moduan, euskaraz hala gaztelaniaz, sermoi txiki bat egiten zuten apaizak. Gainerako guztia latinez izaten zen".

Ezkontza eguneko erretratua ez zegoen guztien eskura. "Gure garaian elizkizuneko argazkia izatea oso zaila zen, ia ezinezkoa. Izatez ere, ezkondu eta gero joaten ginen argazkiren bat ateratzera". Tolosara joaten ziren batzuk, Andoainera besteak baina, Villabonan bertan ere bazen argazkilaria, "Jabier Don villabonatarra, argazki kamara eskuetan hartuta, batetik bestera ibiltzen zen. Garai hartan argazkiak ateratzen zituen herritar bakarra izango zen. Senar-emazte berrien argazki ugari atera zuen".

Ezkontza batzuetarako, oso dotore apaintzen zuten eliza. Pasabidea larrosa petaloz betetzen zuten, lurrik ez ikusteko moduan. Eserleku batetik besterako tartea ere zintzilikatutako loreekin apailatzen zuten. "Sekulako lana egiten zen eliza apain-apain jartzen. Aberatsak asko ezkontzen ziren hala". Elizkizuna amaitu eta gero ez zen arrosik botatzen, "zerbait botatzekotan, larrosaren hostoa botatzen zen. Kastellanoek ekarri zuten arroza botatzeko ohitura hori".



1925ean Juan Bautista Lasa eta Saturnina Morotegi bikotearen eztei-festa, Amasako Pásus baserriaren kanpoan.

HIL AURRETIK, AZKEN-IGURTZIA

Bi urtez behin-edo, noiznahi egiten dute orain azken-igurtzia. Nahi duena joan daiteke sakramentu hori hartzera. "Lehen, ohean, hiltzeko zorian, gaizki zegoenari apaiza etortzen zitzaion etxera, bien bitartean ez". Monagilloak apaizaren aurretik joaten

ziren, farolekin argia eginez, kanpai txikiak joz. Apaiza, berriz, atzetik; kaparen aspian Jauna gordez. "Hara! Badoaz elizakoak egitera" esaten zen apaiza eta monagilloak kalean barrena ikustean. Belauniko jartzen ginen gure aurretik igarotzen zirenean.

Izan ere, apaizak Jauna baitzerraman gaixoari emateko". Azken-igurtzia ematerakoan, gaixoa emakumea edo gizona izan, elizan kanpaikada ezberdinak jotzen zituzten. Gaixoari Jauna ematez gain, azken-igurtzian, gizakiaren zentzumenak hartzen ziren



On Jose Baztarrika Amasako apaiza hil zeneko argazkia. Apaizaren hilkutsa ez zen estaltzen eta kaliza eskuan zuela egiten zen segizioa.

kontuan. "Apaizak, olioarekin igurzten zituen gaixoaren bost zentzumenak sortzen zituen gorputz-atalak: hankak, begiak, belarriak, ahoa eta sudurra. Orain gurutze bakarra egiten da, orduan gurutze txikiak egiten ziren". Azken-igurtzia jasotako gaixo batzuk sendatu egiten ziren gerora. Kasu horietan, berriz ere gaixotuz gero, berriro ematen zioten sakramentua.

Azken-igurtzia emateko, senitartekoren batek apaizari gaixoaren berri ematen zion. Mahai batean, etxe guztietan izaten zen zapi berezi bat jartzen zen eta kandelak piztuta izaten zituen bi kandelero. Baso batean ur bedeinkatua jartzen zen eta erramua bus-titzen zen bertan. Erramu hori Erramu egunean bedeinkatutako adar puska bat izaten zen eta ur bedeinkatua ez zuen apaizak ekartzen, etxeetan izaten zen. "Oraindik ere hartzen dugu. Nik badaukat etxean". "Nik

ere bai" azaldu dute Maritxu Gonzalezek eta Mendizabalek.

Hildakoa ikustera jendea etortzen zen etxera. "Errezatu egiten zitzaion, ur bedeinkatuarekin aitaren eginaz". Ohitura bitxi gehiago ere bazen; bula baraualdiarekin lotuta bazegoen, heriotzarekin ere bazuen loturarik. "Norbait hiltzen zenean, erretore etxera joan eta bulak eskatzen zitzaizkion apaizari. Bulak paper bereziak ziren eta hiltzaren ondoko mahaian, bandeja batean jartzen ziren. Jendea orain tanatoriora joaten bada ere, orduan etxera joaten zen; han izaten baitzen gorputza eta, belauniko jarriz, errezatu egiten zion hildakoari. Errezoa bukatzean, hildakoari bula jarri nahi bazion, txanponen bat bandejan utzi eta bula hildakoaren gainean jartzen zen".

"Entierroa garai hartan goizez izaten zen eta bazkaria gero. Aspaldian, aurrena gorputza lurperatzen zen eta gero egiten zen elizkizuna. Hiru kategoriatako entierroak zeuden: 'De primera', 'de segunda' eta 'de tercera', bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera. Poltsikuak agintzen zuen". Gehien ordaintzen zen kategoria, 'primera'koa zen noski eta, 'primera'koa edo 'tercera'koa apaiz kopuruak nahiz ordutegiak ezberdintzen zuen. "'Tercera'koa pobreena zen, elizkizunik merkeena. Apaiz bakarrak ematen zuen meza; azkar-azkar, goizeko bederatzietan. 'Segunda'koan apaiz gehiagok hartzen zuen parte, bederatzia eta erdietan izaten zen meza. 'Primera'koan, berriz, kanpotik ere etortzen ziren apaizak. Aberatsek aldea bete apaizekin izaten zuten elizki-

zuna. Abesbatzak ere abesten zuen goizeko hamarretako elizkizunean". Aberatsei zuzendutako kantu bat bazen, "Honek badik, honek badik. Honi kantatzeak balio dik".

Pertsona hil eta biharamunean, errosarioa izaten zen hildakoaren etxean; askotan, hamabost misteriotakoa. Gero arrantxoa izaten zen: gazta, ogia eta ardoa.

Gorputza etxetik atera aurretik ere, izaten zen arrantxoa, etxe aurrean. Kaja bizkarrean hartuta abiatzen ziren hilerrira gero. Villabonatik ere oinez joaten ziren Amasara. Askok Lumanera arte egiten zuen segizioa". Arrantxoa ez ezik bazkaria ere egiten zen, "kanpoko jendea moxkortuta joaten zen asko. Hori oso gaizki zegoen. Zu hain triste eta kanpoko...". Inguruko norbait hiltzarekin batera iristen zen lutoa ere. "Norbait hiltzen zenean ardura handiena, 'zein arropa tindatuko dut beltzez?' izaten zen, ez zegoen hildakoarengan pentsatzeko denborarik. Arropa eta bazkaria antolatzen nahikoa lan izaten zen". Hildakoak gurasoak edo anai-arrebak baziren, bi urteko lutoa egin behar zen. Aiton-amonak edo osaba-izebak hiltzen baziren, sei hilabetekoa. "Anaia hil zenean, ni behintzat, urtebete beltz-beltzez ibili nintzen. Txuri-beltzez beste urtebete" aipatu du Maritxu Gonzalezek. "Amona, aitona eta osabaren bat segidan hiltzen baziren, beno... denboraldi luzea igarotzen genuen beltzez jantzita".

Kontzilioa aldatu zutenean aldatu zen hainbat ohitura ere. "Orduan gorputza elizara sartzen hasi ziren, elizkizuna egin eta gero lurperatzen".



Olloroko Bautista Labaien eta Goikoetxe-azpiko Jose Ezeiza kamioi istripu baten ondorioz hil ziren. 1958 urteko martxoaren 2an izan ziren hiletak. Bi gorputzak elizarako bidean.



APAIZGAIARI ORDENAZIOA

Aipatu besterik ez bada ere, apaiz egiteko hartu behar zen eta den sakramentua da

ordenazioa. Apaizgaiari, hamabi urte seminarioan igaro eta gero, apaiz izateko atea

irekitzen zitzaizkion orduan, "guk ez dugu horretaz hitz egingo, ez dakigu eta".

ERLIJIOAREN OHITURA ZORROTZAK

Garai hartako kristautasunaren ohiturak "zorrotzegiak" iruditzen zaizkie orain hizlarietara. "Elizara joaten jarraitzen dugu baina, lehen baino gutxiago. Lehengo ohitura haiek kristautasunak baino gehiago elizak inposatutakoak ziren. Esaterako, Jesukristok komunioa afaldu eta gero eman zuen. Guk, berriz, baraurik hartu behar genuen". Pakita Lasak argi dauka, "niretzat, lehengo ohiturek, mesede baino gehiago, kalte handia egin diote elizari. Orain, hara! Lehen gehiegi eta orain gutxiegi". Solaskide gehienak bat datoz

Pakitaren iritziarekin. Encarnak, "ohitura haiek errespetoa ere ekartzen zuten" zehaztapena egin du. Hura errespetoa ote zen ez da oso garbi geratu, "'primera'ko, 'segunda'ko eta 'tercera'ko entierroen berezitasunak erakusten du hori. Eta dirurik ez bazen zer? Entierrorik gabe utzi behar al zen hildakoa? Batek baino gehiagok eskatu zuen dirua elizkizun hura ordaintzeko". Familia elizko askorengan izugarritzko mina sortzen zuen dirurik ez izateak, "baziren apaiz-dirua odaintzerik izan ez zuten familia kristauak eta hura

ordaindu arte, ez zuten zegokien sakramentua jasotzen. Lotsa handia izaten zen hori familian". Bestelako ohituren artean, oso zabaldua zegoen apiazarekiko errespetoa. "Apaiza kalean ikusitakoan, musu ematen genion eskuan eta 'Ave María Purísima' esaten genuen. Hark, 'Sin pecado concebida, María Santísima' erantzuten zigun". Egun, iraganaren zati dira aipamen hauetariko asko. Hizlariak bat datoz, "ohiturak guztiz aldatu dira, bi mutur. Lehen gehiegizko indarra zuen erlijioak, orain gutxiegi".

Galdu diren ohitura harrigarrien berri eskaini digute *Lumaneko* kideek. Garaiak aldatu egin dira eta, sinesmena mantendu badute ere, aro berrietara egokitzen jakin dute gure lagunek. Ez ziren garai errazak izan, ez horixe!



Maritxu
Gonzalez



Pakita
Lasa



Pello
Iribar



Encarna
Yarza



Martin
Laskurain



Pepita
Lasa



Maritxu
Mendizabal

...ETA HURRENGOAN ZER:

Urriko lehen asteburuan kaleratuko da hamargarren zenbakia. Abentura polit honen erdigunera iritsiko gara orduan. Garai hartan erlijioak zuen pisua ikusita, bi zenbaki eskainiko dizkiogu gai horri. Oraingo honetan, sakramentuak izan ditugu hizpide. Hurrengoan, berriz, erlijioaren bestelako kapituluak izango ditugu mintzagai; Luistarrek edo Mariaren alabek zituzten ohiturak eta ospakizunak, prozesioak nahiz misioak, besteak beste. Argazkian, 1920 urteko prozesioak eta gero, misioetako errezoak egitera, plazara bildu zen herri-taldea ageri da. Aipagarria, atzean ageri den gurutzea eta herritar kopurua.



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. **Ekoizlea:** Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. **Maketazioa:** Maddi Truxuelo. **Argazkiak:** Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. **Inprimaketa:** Sortu grafikak (Zizurkil). **ISSN:** 1698-7330. **Lege gordailua:** SS-1289/04. **Tirada:** 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza
KULTURA SAILA